

GRADUA: INDUSTRIA TEKNOLOGIAREN INGENIARITZAKO  
GRADUA

# GRADU AMAIERAKO LANA

**<IKASLEAREN ETXEBIZITZAREN ZIURTAGIRI  
ENERGETIKOA ETA HOBEKUNTZA  
PROPOSAMENAK>**

**Ikaslea:** Madariaga Zubiaurre, Eneko

**Zuzendaria:** Eguia Renteria, Juan José

**Ikasturtea:** <2017-2018>

**Data:** <Bilbon, 2018, uztailak, 24>

## AURKIBIDEA

1.	Laburpen hiru eleduna .....	2
2.	Irudi, taula eta akronimoen zerrenda .....	3
3.	Sarrera .....	5
4.	Testuingurua .....	6
5.	Helburuak eta irismena .....	10
6.	Metodologia .....	12
6.1.	Datuen bilketa .....	12
6.2.	Datuen aplikazioa .....	13
6.2.1.	Datu administratiboak.....	13
6.2.2.	Datu orokorrak .....	14
6.2.3.	Inguratzailer termikoa .....	15
6.2.4.	Instalazioak.....	17
6.2.5.	Itzalen patroia .....	18
6.2.6.	Emaitzak .....	18
7.	Hobekuntzen analisisa .....	20
7.1.	Isolamendu termikoaren hobekuntza.....	20
7.2.	Hutsuneen hobekuntza .....	23
7.3.	Zubi termikoen hobekuntza .....	24
7.4.	Instalazio termikoen hobekuntza.....	24
7.5.	Hobekuntzen bilketa .....	27
7.6.	Aukeratutako hobekuntza.....	28
8.	Planifikazioa (Gantt-en diagrama).....	29
9.	Aurrekontua .....	32
10.	Ondorioak eta lanaren onurak .....	35
11.	Informazio iturriak.....	37
12.	I Eranskina: Etxebizitzaren planoak.....	39
13.	II Eranskina: .....	41
14.	III Eranskina: Aireztatze eta ur bero sanitario kalkuluak.....	42
15.	IV Eranskina: Ziurtagiri energetikoaren txostena.....	44
16.	V Eranskina: Hobekuntza txostena.....	50

## 1.Laburpen hiru eleduna

[EU] Lan honen helburu nagusiak Eneko Madariagaren etxebizitzaren ziurtagiri energetikoaren lorpena, eta hortik abiatuz, hobekuntzarako proposamenak eta azterketa egitea dira. Horretarako CE3X programa erabiliko da eta era simple batean datuak programan sartuz ziurtagiri energetikoaren kalifikazioa lortuko da eta ondoren hobekuntza aukera desberdinak eskainiko ditu. Hauek balioztatzeko bakoitzaren analisi sakon bat egingo da. Dokumentu honetan ziurtagiria lortzeko beharrezko urratsak azaltzen dira, aplikatu daitezkeen hobekuntzen azalpena eta hobekuntza hauek aplikatu ondoren lortuko den ziurtagiri energetikoaren kalifikazio berria emango dira. Eranskinetan prozesu guztia hobeto ulertzeko informazio gehigarria erakutsiko da.

[ES] El objetivo de éste trabajo es la obtención del certificado energético de la vivienda de Eneko Madariaga, y partiendo de ésta calificación, la propuesta de posibles mejoras y su siguiente análisis. Para ello se utilizará el programa CE3X en el cual proporcionando los datos de una forma simple se conseguirá la calificación del certificado energético y proporcionará diferentes opciones de posibles mejoras. Para validar dichas mejoras se hará un análisis exhaustivo de cada una de ellas. En éste documento se explican los diferentes pasos a seguir para conseguir el certificado, las diferentes posibles mejoras y tras aplicarlas se expondrá la nueva calificación a conseguir. En los diferentes anexos se mostrará información adicional para una mejor comprensión del proceso.

[EN] The objective of this work is the achievement of the energy certificate of Eneko Madariaga's home, and based on this qualification, the proposal and the analysis of posible improvements. CE3X software will be used to obtain the qualification of the energy certificate introducing data values in a simple way, offering different improvement proposals. To validate them, a thorough analysis of each proposal will be carried out. In this report necessary steps needed to obtain the certificate will be explained, the explanation of the improvement proposals that could be applied and the new certificate that will be obtained after apply them. In the attachments there is additional information given for the easier comprehension of the process.

## 2. Irudi, taula eta akronimoen zerrenda

Irudia 1: Ziurtagiri energetikoaren kalifikazio eskala .....	6
Irudia 2: Datu administratiboak sartzeko leihatila .....	14
Irudia 3: Datu orokorren leihatila.....	15
Irudia 4: Inguratzaile termikoak definitzeko aukerak .....	15
Irudia 5: “Retranqueo” eta “voladizo” pestañatxoetan idatzi beharreko informazioa .....	17
Irudia 6: Lortutako ziurtagiri energetikoa .....	18
Irudia 7: Kanpo isolamendua jartzearen hobekuntza .....	20
Irudia 8: Barne isolamendua jartzearen hobekuntza.....	21
Irudia 9: Hutsuneen hobekuntzarako aukerak.....	23
Irudia 10: Leiho berriak jartzearen hobekuntza.....	23
Irudia 11: Pertsiana kaxak isolatzearen hobekuntza.....	24
Irudia 12: Instalazioak aldatzearen hobekuntza proposamenak .....	25
Irudia 13: Biomasazko galdara aldatzearen hobekuntza .....	26
Irudia 14: Efizientzia energetiko altuko bero ponpa instalatzearen hobekuntza .....	26
Irudia 15: Aurreko hobekuntza guztiak aplikatzearen hobekuntza .....	27
Irudia 16: WATT COMPACTA Biomasa galdara eta bere espezifikazioak.....	28
Irudia 17 : Gantt diagrama .....	31
Irudia 18: Eraikinaren plano .....	39
Irudia 19: Etxebizitzaren plano erreala .....	39
Irudia 20: Etxebizitzaren plano sinplifikatua eta itxituren izendapena.....	40
Irudia 21: Orduko aire berriztatzearen kalkuluak .....	42
Irudia 22: Ur bero sanitarioaren kalkulua .....	43
Irudia 23: Ziurtagiriaren txostena, 1 orrialdea .....	44
Irudia 24: Ziurtagiriaren txostena, 2 orrialdea .....	45
Irudia 25: Ziurtagiriaren txostena, 3 orrialdea .....	46
Irudia 26: Ziurtagiriaren txostena, 4 orrialdea .....	47
Irudia 27: Ziurtagiriaren txostena, 5 orrialdea .....	48
Irudia 28: Ziurtagiriaren txostena, 6 orrialdea .....	49
Irudia 29: Hobekuntzen txostena, 1 orrialdea .....	50
Irudia 30: Hobekuntzen txostena, 2 orrialdea .....	51
Irudia 31: Hobekuntzen txostena, 3 orrialdea .....	52

## Taulen zerrenda

Taula 1: Proiektuaren aurrekontua .....	34
Taula 2: Fatxadako hormak eta bere ezaugarriak.....	41
Taula 3: Hutsuneak eta bere ezaugarriak.....	41

## Grafikoen zerrenda

Grafikoa 1: Barne isolamendua jartzearen Payback-a .....	22
Grafikoa 2: Biomazako galdara instalatzearen Payback-a.....	33

### 3. Sarrera

Txosten honetan Eneko Madariagaren Gradu Amaierako Lanaren (GRAL) memoria aurkezten da, bere edukia etxebizitzaren ziurtagiri energetikoaren lorpena, hobekuntza posibleen ikasketa eta horiei dagokien ikasketa izanik.

Gaur egun ziurtagiri energetikoa izatea ezinbesteko bihurtu da edozein motatako etxebizitza edo ondasun higiezin saldu edo alokatzen dituzten jabeentzat. Horren ondorioz, proiektu hau oso baliagarria izango litzateke etorkizun batean aztertutako etxebizitza saltzeko edo alokatzeko asmoa baldin badago.

Lehenengo eta behin testuingurua azaltzen da, bertan proiektuaren abiapuntua azalduko da, hau da, non garatuko den, etxebizitzaren ziurtagiri energetikoaren legedia eta bere bilakaera gaur egun ezagutzen dugunera heldu arte, orokorrean era honetako proiektuek izan dezaketen onurak, etab. Ondoren, proiektuaren helburuak eta irismena edo nondik norakoak zehaztuko dira.

Helburuak eta irismena argi edukita, lanaren garapena hasten da, bi atal nagusitan bana daitekeena. Lehenik eta behin CE3X programarekin lan egingo da eta etxebizitzaren ziurtagiri energetikoren kalifikazioa lortuko da. Hau egin ondoren, programa berak kalifikazio horren hobekuntzarako aldaketak proposatzen ditu eta horiek aztertuta bideragarriena zein den aztertuko da. Hau da, aldaketa bakoitzaren analisi sakon bat eginez kalifikazio berria lortzen da eta ondoren bakoitzaren analisi sakonago bat eginez egokiena zein de aztertzen da. Azalduko guzti hau lortzeko prozesu osoa lanean zehar azalduko da, aurretik aipaturiko CE3X programa erabiliz.

Prozesu hau guztia egin ondoren, aztertutako hobekuntzetatik egokiena aztertuta, etxebizitzan izango dituen onurak eta aldaketak azaltzen dira, eta izan dezakeen inpaktu ekonomiko zehatza ere.

Ostean Gantt diagrama erabiliz proiektuan zehar burututako atazak azaltzen dira. Bertan lan hau egiteko pausuak aipatzen dira eta horiek egiteko behar izan den denbora.

Pausu guztiak egin ondoren, aukeratutako hobekuntzaren aurrekontua egingo da, non proiektuan egindako lana eta hobekuntza aplikatzeko kostua kontutan hartuko diren.

Azkenik, lana egin ostean lortutako ondorio garrantzitsuenak eta lan honek etxebizitzarentzat eta jabeentzat ekarriko dituzten onurak azalduko dira eta eranskin ezberdinetan informazio gehigarria erakutsiko da.

## 4. Testuingurua

Lan honetan Eneko Madariagaren etxebizitzaren ziurtagiri energetikoaren lorpenaren memoria aurkezten da. Etxebizitza hau Busturian kokatzen da. Bizkaiko iparraldeko udalerrria da eta kostaldean kokatuta dago, Busturialdeako eskualdean. 1700 biztanleko herri txikia da 19,56 km<sup>2</sup>-koa eta Bilbo hiriburutik 28 kilometrotara aurkitzen da.

Azterturiko etxebizitza, etxebizitza bloke baten laugarren solairuan dago. Eraikina San Cristobal auzoan aurkitzen da eta 1965 urtean eraiki zen. Eraikinak lau solairu ditu behean garajeak izanik eta goiko aldean, teilatu aldean, kamaroteak. Inguruan ez du etxe handirik haizetik babesten duenik, eta beraz, iparralderantz kokatuta dagoen horma haizearen kontrako babesa dauka. Aztertuko den etxebizitza honek kalera ematen duten bi horma dauzka, bata hegoalderantz ematen duelarik eta besteak mendebalderantz.

Ziurtagiri energetikoaren gaiari heldu baino arinago, kontzeptua era argi batean azaldu behar da. Europar legediaren arabera, eraikin baten efizientzia energetikoaren ziurtagiria, Europar Batasuneko estatu edota honek esleitutako pertsona juridiko batek onartutako ziurtagiria da, zeinetan eraikin horren edota bertako unitate baten efizientzia energetikoa erakusten den. Honekin kalifikazio energetikoa lortzen da, non eraikin baten edo bere zati baten efizientzia neurtzen den. Horretarako eskala bat erabiltzen da, hizki eta kolore ezberdinetako eskala bat hain zuzen ere. Hizkiak A-tik G-ra doaz eta koloreak berdetik gorrira, kalifikazio onenetik txarrenera hurrenez hurren. Hurrengo irudian ikus daiteke eskalaren nondik norakoak (**irudia 1**):



*Irudia 1: Ziurtagiri energetikoaren kalifikazio eskala*

Ziurtagiri energetikoen lorpen ofizialerako, lege ez dago pertsona baimendurik, hau da, edonork egin dezakeen prozesua da, nahiz eta ofiziala izateko, egilea tituluduna izan behar den. Hala ere, 235/2013 Errege Dekretuak argitzen du kalifikatuenak arkitektura, arkitektura tekniko, ingeniaritza eta ingeniaritza tekniko titulazioetako profesionalak direla. Ondorioz, ziurtagiriaren balioztapena aipaturiko profesionalen sinadura lortzean ezartzen da.

Legediari dagokionez, Eraikinen efizientzia energetikoaren zuzentaraua (EPBD: Energy Performance of Buildings Directive) Europako arau nagusia da eta eraikuntzari dagokionez Europar Batasuneko helburuak betetzea bermatzeari zuzenduta dago, batez ere negutegi efektuko gasen emisioen murrizketa, kontsumo energetikoa, efizientzia energetikoa eta iturri berriztagarrietatik sortutako energiari dagokionez.

Ziurtagiri energetikoaren aurrekaria “1993ko irailaren 13ko Kontseiluaren 97/76/CEE” Zuzentaraua da, eta bere helburua efizientzia energetikoaren hobekuntzaren bitartez karbono dioxidoaren emisioen mugaketa da. Hau da, eraikinetan efizientzia energetikoa hobetzeko Estatu Kideek aurrera eraman beharreko ekintza zerrenda bat da, eta horrela, horiek aplikatuz negutegi efektuko gasen emisioa murriztea. Tratatu honek, bi urterik behin Komisioari informatzeko beharra ezezik, ez du benetako derrigortasunik aurkezten. Hori dela eta, ez zuen arrakasta handirik izan.

2003ko urtarrilaren 4an “2002/91/CE (DEEE,2003)” zuzentaraua ezarri zen eta hortik dator hain zuzen ere gaur egun ziurtagiri energetikotzat ezagutzen duguna, zuzentarau honetatik aurrera ziurtagiri energetikoen kontuak ezarri baitziren. Zuzentarau honek Kyoto-ko Protokoloan du bere oinarria eta honen bitartez Europar Batasuneko estatu kideei 2008-2012 urte bitartean 1990 urtean izandako gasen emisioen murrizpena %8-koa izatea eskatzen zitzairen.

Aurreko guztia lortzeko, eta efizientzia energetikoaren hobekuntza lortzeko, zuzentarau berri horrek hiru erreminta zehatzez baliatu zen:

- Bai eraikin berrietan eta baita berriztatze lan nabariak jasango dituzten eraikinetan energiaren erabilerari baldintzak ezartzea.
- Ziurtagiri energetikoen ezarpena.
- Tamaina handi eta ertaineko klimatizazio sistemen ikuskapena.

2010eko maiatzaren 19an, “2010/31/CE Europar Parlamentu eta Kontseiluaren zuzentaraua, eraikinen efizientzia energetikoei buruzkoa” ezarri zen. Zuzentarau hau, aurretik indarrean zegoen 2002/91/CE zuzentaraua aldatuz lortu zen legegintzako prozesu luze baten ostean. Aldaketa nagusientzat, alde batetik efizientzia energetikoaren neurria aipatzen da kontutan



eduki beharreko balio bezala eta beste alde batetik hobekuntzarako gomendioak efizientzia energetiko optimoaren erlazioan jarri behar direla. Gainera aukerakotzat ematen dira auditoretza energetikoen, sarien eta finantzazio iturrien inguruko erreferentziak egitea.

Azkenik, 2012 urtean gaur egun indarrean dagoen zuzentaraua 2012/27/UE zuzentaraua ezartzen da. Efizientzia Energetikoaren Zuzentaruaren helburua efizientzia energetikoa sustatzeko neurrien esparru komun bat sortzea da. Horrela, Europar Batasuneko herrialdeek energiaren %20a aurreztea ziurtatu dezaten, aldez aurretik “20 hirukoitza” zuzentaruaren hitzartu bezala. Gainera, zuzentaruak Estatu Kideak 500 metro karratu baino gehiago dituzten eraikin publikoen %3a berriztatzera derrigortzen ditu. Espainian, efizientzia energetikoaren ziurtagirirako oinarritzko prozedimendua 235/2013 Errege dekretuak arautzen du, apirilaren 5koa.

Etxebizitzetara dagokienez, saltzen edota alokatzen diren etxebizitza oro derrigortuta dago ziurtagiri energetikoa eginda izatea, ziurtagiri honek 10 urteko indarraldia duelarik.

Ziurtagiri energetikoa legez derrigorrezkoa izateak, pertsona asko eta orokorrean sozietatea kontrako iritzia izatea eragiten du. Inposizio gisa ikusten dute edota dirua biltzeko zerga gisa. Baina errealitatea desberdina da. Ziurtagiri energetikoak hainbat onura ditu bai gizakientzako eta baita ingurugirorako. Izan ere, Nazioarteko hitzarmenek adostu zuten bezala, bai kontsumo energetikoa gutxitzeko eta baita ingurugiroarekiko inpaktua minimizatzeko hartutako neurri bat da. Ondorioz, ziurtagiri energetikoaren hobekuntzak ekar ditzakeen onurak hurrengoak dira:

- Kontsumo energetikoaren murrizketa: gerta daiteke gehiegizko kontsumo batean bizitzen egotea. Hori dela eta, ziurtagiri energetikoari esker, arazo horiek ekar ditzaketen puntuak aztertu daitezke eta horiei konponbidea ematen saiatzea kontsumo energetikoa murrizteko.
- Aurrezte ekonomikoa: Konfort egoera mantentzeko kontsumo energetikoaren murrizketak zuzenean ikus daitezke bai argiaren ordainagiritan edota erregai ordainagiritan. Hori dela eta, kontsumoa murrizteko egin beharreko erreforma berriak oso errentagarria izan daitezke sortzen diren aurrezte ekonomikoari esker. Hau da, nahiz eta erreforma berri batean inbertsio bat egin, horrek energetikoki aurrezte bat ekarriko du eta ondorioz, gerta daiteke inbertsio hori laster errekueratzea. Hori horrela izanda, gure ziurtagiri energetikoaren eskalaren handipen bat lortzea gerta daiteke eta horren eraginez dagokion etxebizitzaren prezioaren balio erantsi bat lortzea.

- Higiezin merkatuan nabarmentzea: Ziurtagiri energetikoaren alde positibo bat energetikoki etxebizitzaren artean konparaketak egitea izango litzateke. Orokorrean, ziurtagiri energetikoak higiezin merkatuan faktore handiko zerbait da. Berari esker, kompetentzia handitu egiten da eta gero eta garrantzitsuagoa ari da bihurtzen merkatu honetako partaideentzat.
- Subentzioak eta diru laguntzak: Espainian indarrean dagoen legediaren arabera, ziurtagiri energetikoa hobetzeko asmoz eta kontsumo energetikoa nahiz eskaria gutxiagotzeko premiarekin, diru laguntzak eta subentzioak eskaintzen ditu erreformak edo errehabilitazioak egiteko. Laguntza horiek hurrengo kasuetan eska daitezke:
  - Inguratzaile termikoaren efizientzia energetikoa hobetzerakoan
  - Argiztapen instalazioak eta instalazio termikoen efizientzia energetikoa hobetzerakoan
  - Ohiko energia konbentzionala Biomasarekin ordezkatzekoan
  - Ohiko energia konbentzionala energia geotermikoarekin ordezkatzekoanJaso daitezkeen laguntzaren zenbateko maximoa %90ekoa izan daiteke. Hau da, egin beharreko obraren balioaren %90a diruz lagundutakoa izan daiteke.
- Konfort egoeraren hobekuntza: Etxebizitzetan aplikatzeko erakusten diren ziurtagiri energetikoaren hobekuntza eskaintza guztiek konfort egoera hobetzeko balio dute. Honek guztiak osasun kontuetan ere eragina dute. Izan ere, adituek egindako ikerketen arabera ziurtagiri energetiko hobea duten etxebizitzek gaixotasunak edota osasun arazoak jasateko arriskua txikiagotzen dute. Hala nola, arnasketa gaixotasunak edota gaixotasun kardiobaskularrak.
- Ingurumena errespetatzea: Energiaren produkzioa eta erabilera dira gaur egun ingurumena kutsatzeko alderdi garrantzitsuenetako batzuk. Horregatik, etxebizitza batean kontsumoa gutxiagotzeko hobekuntzak aplikatzean ingurumena kutsatzen dituzten gasen isuria gutxiagotzea dakar. Gas horien atmosferarako emisioen murrizketak, planetako biztanleen bizitzarako oso kaltegarriak diren negutegi efektu, euri azido edota ozono geruzaren zulaketa minimizatuko dute bizitza erosoago bihurtuz eta ingurumenarekiko inpaktua gutxiagotuz.

Ikusienez, eraikuntza eta energia arloetan ziurtagiri energetikoa lortzea oso garrantzitsua da. Beraz, gaur egun oso garrantzi handia ematen zaio efizientzia handiko eraikin berriei edota aurretik eraikitakoei efizientzia hori hobetzeko hobekuntzen ikasketa egiteari.

## 5. Helburuak eta irismena

Txosten honen helburu nagusiak etxebizitzaren ziurtagiri energetikoa lortzea eta horrez gain ziurtagiri hori hobetzeko hobekuntzen proposamenak egitea eta horien bideragarritasuna aztertzea dira. Horretaz aparte etxebizitzaren efizientzia energetikoaren munduan gehiago sakontzea eta ziurtagiri energetikoaren kalifikazioa lortzeko CE3X programarekin harremanetan jartzea ere helburutzat har daitezke. Beraz, lan hau bi atal ezberdinetan banatuta egongo da: lehena etxebizitzaren ziurtagiria ateratzea izanik eta bigarrena hori hobetzen saiatzea CE3X programaren laguntzaz.

Gaur egun efizientzia energetikoko ziurtagiria eskatzen da efizientzia handiko eraikinak eraikitzea bultzatzeko. Horren ondorioz, energia gehiago sortzeko eta gutxiago kontsumitzeko premia sortzen da. Horrela, etorkizunean kontsumo ia nuluko etxebizitzak lortzeko helburua sortzen da energia berriztagarrietatik oinarriturik. Hau da, etorkizun labur batean efizientzia oso altuko eraikinak egitea espero da eta behar duten kontsumo ia nulua edota oso baxuarekin aurre egiteko autonomoak izatea, bai etxebizitzaren barnean edo inguruetan ekoiztutako energia berriztagarrien ondorioz. Gainera gizabanakoen konfort egoera ere bilatzen da, azkenean hori baita arazorik garrantzitsuenetarikoa. Horretarako energetikoki eraikinen baldintzak hobetzeaz aparte, emisioak murriztea lortzen denez, planetaren onura ere lortzen da eta hori dela eta klimaren aldaketan ere zeresana izango du. Hau da, azken finean planetaren onura gizakien eta bere biztanleen bizitza hobetzeko izango da.

Gainera ziurtagiri energetikoaren laguntzaz, norberak bere etxebizitzan dauden kontsumoen kontrola izan dezake. Izan ere, etxebizitzaren kontsumo ezberdinen informazioa lortuko da eta horiek murrizteko hobekuntzen laguntzaz kontrol gehiago izateko aukera ematen da.

Salbuespenak salbuespen, gaur egungo legediaren arabera, aurretik esan bezala, alokatzeko edota saltzeko dauden etxe guztiek ziurtagiri energetikoaren beharra dute. Ziurtagiri honek erosleari (edo alokatuari) nahiz saltzaileari informazio oso berezi eta zehatza ematen dio konparaketak egiteko aparta.

Ziurtagiri energetikoaren indarraldia 10 urtekoa da eta lortzeko arduraduna etxebizitzaren jabea izango da. Ondorioz, etxebizitzan edozein motatako hobekuntza edo obra eginez gero, jabearen aukera izango da ziurtagiria berritzea edo ez.

Hau guztiaren ondoren, hobekuntzen atala dator, zeinen laguntzarekin etxebizitzan egin ahalko diren hobekuntzak aztertuko diren beti ere efizientzia energetikoa hobetzeko edota kontsumo

energetikoa murrizteko asmoz. CE3X programaren laguntzaz, berak eskainitako aldakuntzen arabera hobekuntza bakoitzari azterketa sakon bat egingo zaio bideragarriena zein den ikusiz. Beraz, txosten honetan zehar, ziurtagiria atera ostean ikusiko dira zein hobekuntza egin ahalko zaizkio etxebizitzari bere kalifikazio energetikoa hobetzeko eta aztertuko da ere zein izan litekeen aukeratzeko hoberena bai energetikoki eta bai ekonomikoki aztertuz.

## 6. Metodologia

Ziurtagiri energetikoa kalkulatzeko orduan, bi fase bereiziko ditugu. Lehenengo eta behin etxebizitzaren datuak bildu behar ditugu: Hormen barne neurriak, hutsuneen dimentsioak, inguratzaile termikoaren datuak eta instalazio termikoaren espezifikazioak. Ondoren, datu bilketa egin ostean, datuak CE3X programan sartu beharko dira, ziurtagiri energetikoa ateratzeko erabiliko den softwarean.

### 6.1. Datuen bilketa

Busturian kokaturiko etxebizitza hau 1965 urtean eraikitako 4 solairuko eraikin bloke bateko etxebizitza da. Solairu bakarreko da eta laugarren solairuan kokatzen da. 91,11 metro karratuko azalera erabilgarria du eta bere altuera librea 2,5 metrokoa da. Etxebizitzaren nahiz blokearen planoak I Eranskinean aurki daitezke.

Aztergaia den etxebizitza bloke osotik Hego-Mendebalderago dagoen etxebizitza izanik, hegoaldera eta mendebaldera orientaturiko hormak kalerantz ematen dute zuzenean. Hori horrela izanda, beste hormek eta zoruak zuzenean beste etxebizitzekin kontaktuan daudenez adiabatikotzat hartzen dira eta beraz, ez dira zuzenean aztertzen. Hala ere, ekialderantz ematen duen hormak eskilarekin kontaktuan egongo da. 4 solairuko eraikina izanik eta 4 solairuan kokaturik egoteagatik, sabaia zuzenean kamaroteekin kontaktuan dago, beraz, softwarean barne partizio berezi bat egin beharra dago. Gainera, eraikinak inguruarekin kontaktuan dauden bi patio dauzka horietako bat etxebizitzarekin kontaktuan dagoelarik. Hori dela eta, etxebizitzaren patioa iparraldera, hegoaldera eta ekialdera orientatutako barne hormak ere kalearekin kontaktuan daude zuzenean.

Mendebalderantz orientatutako hormari dagokionez, softwarean sartzera M1 modura izendatu da. Horma horrek 15.49 metro karratuko azalera du, egongelak, sukaldeak eta logela bikoitz batek eratua. Hortaz, horma horretan zehar hainbat leiho edo hutsune aurki daitezke. Lehena egongelako hutsunea da V1 izendatua eta 4.16 metro karratuko azalera betetzen du. Ondoren sukaldeko hutsuneak balkoira ematen duen ate batek eta leiho batek osatzen dituzte. Ateak, V3 balkoia izendatua, 1.7 metro karratuko azalera betetzen du eta leihoak, V2 izenarekin, aldiz, 1.35 metro karratu. Azkenik, horma honetako azken hutsunea 2.45 metro karratudun azalera leiho batek osatzen du eta V4 izenaz izendatzen da.

Beste alde batetik, Hegoalderantz orientatutako kalerantz ematen duen M2 horma dago 18.25 metro karratuko azalera betetzen duena. Horma honetako hutsuneei dagokionez, bi bereizten

dira, biak logela sinpleen hutsuneak izanik. Lehenengoa V5 moduan izendaturiko 2.45 metro karratuko leihoa kokatzen da eta azkenik V6 izenaz deituriko 1.62 metro karratuko leihoa.

Patioari helduta, etxebizitzak hiru horma ditu bertan kalera ematen dutenak: hegoaldera, iparraldera eta ekialdera orientatutako hormak, M3 Patioa, M4 patioa eta M5 Patioa deiturikoak hurrenez hurren. Horma horietan zehar hutsune bakarra aurki daiteke, Iparraldera orientatutako horman hain zuzen ere. Beraz, horri V7 deituriko 0.98 metro karratuko leiho opakoa da.

Hutsune guztiak, hau da, leiho guztiak eta balkoiaren atek beira bikoitzekoak dira eta inguratzen duten markoak zurezkoak dira. Denak dira mota berdinekoak komunekoa izan ezik, opakuagoa dena. Datu hauek guztiak hobeto ikus daitezke era antolatuan II Eranskinean.

Hau guztiaren datu bilketa egin ostean, itxituren azterketa egin da. Eraikin oso zaharra izanik, aireztatze gabeko hormak dituela antzeman da. Horretaz aparte ez da datu askorik lortu, beraz, transmitantziaren kalkulurako datu gehiegirik ez dagoenez programak egiten duen estimazio batekin egingo da lan gero ikusiko den bezala.

## 6.2. Datuen aplikazioa

Datuak bildu eta gero, datu horiek interpretatu beharra dago. Horretarako softwarean sartuko dira ziurtagiri energetikoa lortzeko. Programak berak datuak sartzeko leiho ezberdinak ditu informazioa pausoka nola sartu adieraziz. Beraz, ondoren azalduko da informazioa nola sartu behar den programak agintzen duen moduan.

### 6.2.1. Datu administratiboak

Datu administratiboen leihatila honetan datu orokorrak idatziko dira. Programak eskatzen duen bezala, ziurtagiria egiten duen teknikoaren eta ziurtagiria jasotzen duen onuradunaren datuak sartu behar dira eta baita eraikinaren lokalizazio eta identifikazio datuak ere, hurrengo irudian ikus daitekeen bezala (**irudia 2**).

Localización e identificación del edificio			
Nombre del edificio	<input type="text"/>		
Dirección	<input type="text"/>		
Provincia/Ciudad autónoma	<input type="text"/>	Localidad	<input type="text"/>
Referencia Catastral	<input type="text"/>	Código Postal	<input type="text"/>
	<input style="border: none; border-bottom: 1px solid black;" type="button" value="+"/>		

Datos del cliente			
Nombre o razón social	<input type="text"/>		
Dirección	<input type="text"/>		
Provincia/Ciudad autónoma	<input type="text"/>	Localidad	<input type="text"/>
Teléfono	<input type="text"/>	E-mail	<input type="text"/>
		Código Postal	<input type="text"/>

Datos del técnico certificador			
Nombre y Apellidos	<input type="text"/>	NIF	<input type="text"/>
Razón social	<input type="text"/>	CIF	<input type="text"/>
Dirección	<input type="text"/>		
Provincia/Ciudad autónoma	<input type="text"/>	Localidad	<input type="text"/>
Teléfono	<input type="text"/>	E-mail	<input type="text"/>
Titulación habilitante según normativa vigente	<input type="text"/>		
		Código Postal	<input type="text"/>

Irudia 2: Datu administratiboak sartzeko leihatila

### 6.2.2. Datu orokorrak

Programaren leiho honetan etxebizitzaren datu zehatzagoak sartzen hasi behar da, hala nola, eraikuntza urtea, eraikin mota eta helbidea. Eraikuntza urtea sartzen den momentuan, programak automatikoki ezartzen du eraikitako urte horretan eraikinak bete behar zuen araudia. Kasu honetan eraikina 1965 urtean egin zenez, araudia NBE-CT-79 araudiaren aurrekaria izango da. Gauza berdina gertatzen da helbidea sartzeko orduan, izan ere, helbide zehatza sartzen den momentuan softwareak zonalde horretako klima ezartzen du automatikoki. Ondoren, eraikin mota ere adierazi beharra dago, aztergai den kasuan bakarkako etxebizitza delarik.

Azkenik, leiho honetan eraikinaren definizio zehatz bat egin behar da, azalera erabilgarria, solairu altuera librea, solairu erabilgarriak, etxebizitzaren aireztapen zikloak eta ur bero sanitario kontsumo totala zehaztuz. Azken bi datu hauek kalkulatu egin behar dira. Horretarako Eraikuntza Kodigo Teknikoak (CTE: Código Técnico de la Edificación) errazten dituen taula batzuen laguntzaz datu hauek kalkulatu dira. Bai taula eta kalkuluak II Eranskinean daude ikusgai. Datu guzti hauek programan nola sartu behar diren hurrengo irudian erakusten dira (**irudia 3**):

**Datos generales**

Normativa vigente: Anterior ? Año construcción: 1965

Tipo de edificio: Vivienda Individual

Provincia/Ciudad autónoma: Vizcaya Localidad: Otro Busturia

Zona climática: HE-1 C1 HE-4 I

---

**Definición edificio**

Superficie útil habitable: 91.11 m<sup>2</sup>

Altura libre de planta: 2.5 m

Número de plantas habitables: 1

Ventilación del inmueble: 0.51 ren/h

Demanda diaria de ACS: 112 l/día

Masa de las particiones internas: Pesada

Se ha ensayado la estanqueidad del edificio



 

Imagen edificio Plano situación

Irudia 3: Datu orokorren leihatila

### 6.2.3. Ingurutzaille termikoa

Sartu beharreko informaziorik garrantzitsuen da, izan ere, honek zehaztuko du zati handi batean jasoko den ziurtagiri energetikoaren kalifikazioaren emaitza. Itxiturak definitzeko leihatila da. Bertan, aurretik lorturiko fatxadaren hormak eta hutsuneak definituko dira. Hala ere, programak hainbat aukera ematen ditu bestelako ingurutzaille termikoak kalkulatzeko horietaz aparte hurrengo irudian ikus daitekeen moduan (**Irudia 4**).

### Envolvente térmica del edificio

- Cubierta
- Muro
  - En contacto con el terreno
  - De fachada
  - Medianería
- Suelo
- Partición interior
- Hueco/Lucernario
- Puente térmico

Irudia 4: Ingurutzaille termikoak definitzeko aukerak




Programa honek inguratzaile termikoa definitzerako orduan 3 modu ezberdin ditu:

- Lehenengoa propietate termikoak modu estimatu batean definitzeko aukera emate da. Kasu honetan, inguratzaile termikoaren geruza guztiak ezagutzen ez badira, programak aurreko datuak kontutan hartuz, hau da, eraikitako urtea, eraiki zen araudiaren arabera transmitantzia estimatu bat adierazten du, ustez hobeto egokituko zaiona.
- Bigarren kasua defektuz programak transmitantzia berri bat egokituko dio inguratzaile termikoari.
- Azkenik, hormaren konposizioa ezaguna baldin bada, programa honek hormaren profila egiteko aukera ematen du edota aldi berean transmitantziaren balioa kalkulatu badago edo ezaguna baldin bada, balioa zuzenean idazteko aukera ematen du.

Fatxadaren kasuan, aztertzen ari den kasuan, ez dago datu nahikorik. Jakinak diren datuak hormen azalerak eta orientazioak dira eta horma ez aireztatua dela, beraz, datu horiek sartzeko orduan programak transmitantzia termikoaren estimazio hurbildu bat definituko du. Operazio berbera egingo da M1, M2, M3 Patioa, M4 Patioa eta M5 Patioa deituriko horma guztiekin. Geratzen diren hormekin, hau da, beste etxeekin kontaktuan daudenak, medianera moduan kalkulatu dira kontaktuan dagoen azalera eta horma mota nolakoa den zehaztuz, pisutsua edo arina. Azkenik sabaiaren kasuan barne partizio bat egingo da ez baitago beste etxebizitzekin kontaktuan, kamaroteekin baizik. Beraz, azalera osoa kontaktuan dagoenez azalera guztia definitu eta defektuzko transmitantzia erabiliko da kalkulurako.

Ondoren hutsuneak definitzen dira. Hutsuneak definitzeko, aurretik kalkulatu azalera, markoak azalera betetzen duen portzentaia, markoen egituraren materiala eta leihoen beira mota sartu behar dira eta programak zuzenean transmitantzia egokiena estimatuko du. Kasu honetan azalera zehaztu dira eta markoak zurezkoak direla zehaztu da. Baita markoen koloreak ere eguzki izpien absorbitate kontuan izateko. Azkenik leihoen forma ere zehaztu da programak duen "retranqueo" pestañatxoak erakusten duen bezala eta baita ere teilatuak leiho batzuetan eragingo duen eguzkiaren kontrako babes bere "voladizo" izeneko pestañatxoan (Irudia 5).



Irudia 5: "Retranqueo" eta "voladizo" pestañatxoetan idatzi beharreko informazioa

Behin inguratzaille termikoa zehaztuta, zubi termikoak definitu behar dira. Programak berak hurrengo zubi termikoak kargatzeko aukera ematen du:

- Fatxadan integratutako zutabea
- Izkinako zutabea
- Hutsunearen mugaldea
- Pertsiana kaxa
- Fatxada eta forjatu arteko bilgunea
- Fatxada eta kubiarta arteko bilgunea
- Fatxada eta airearekin kontaktuan dagoen lurzoruaren arteko bilgunea
- Fatxada eta zolarri arteko bilgunea

Programak honek, automatikoki gehitzen ditu zubi termikoak, beraz, guztiak begiratu behar dira banan-banan eta kasu bakoitzaren arabera beharrezkoak ez direnak kendu. Aztertutako kasuan etxebizitzaren planoetan ahal izan den neurrian antzeman denez, fatxadan integratutako zutabeak daude horma batzuetan. Gainera leiho bakoitzak bere pertsiana kaxa du, leiho opakuak izan ezik eta fatxada eta forjatu arteko bilguneak kontsideratzen dira.

#### 6.2.4. Instalazioak

Etxebizitzak berokuntza eta ur bero sanitarioarako ekipu mixto bat du. Junkers markakoa da eta ez dago datu askorik honi buruz galdara nahiko zaharra baita. Hala ere, jakina da 24kW-ko potentzia nominala duena, %90eko errendimendua eta propanoa erabiltzen duela. Beraz, datuak programan sartzerako orduan erregai mota GLP (Gas Licuado del Petróleo) moduan aukeratuko da. Galdara nahiko zaharra da eta isolamendu txarra dauka. Berogailu sistema etxe guztira hedatzen denez, ez da aparteko kalkulurik edo datu extrarik sartu behar.


### 6.2.5. Itzalen patroia

Oso garrantzitsua da inguruko eraikin edo bestelakoak etxebizitzetan proiektatu ditzaketen itzalak aztertzea. Horiek ere ziurtagiri energetikoa kalkulatzeko orduan zeresan handia daukate. Programa honetan beste leihatila bat dago itzalak kalkulatzeko horien patroia sinplifikatu bat eginez. Aztertutako etxebizitzaren kasuan, inguruko eraikin handiena denez eta ez duenez eraikin handirik bere inguruan, ez dago proiektatu daitekeen inolako itzalik eta beraz, kalkuluetarako ez da erabiliko.

Etxebizitzarengan itzala proiektatu dezakeen elementu bakarra eraikinaren teilatua da, teilatua baita irteten den punturik nabarmenena. Hala ere ez da horma guztietan zehar neurri berdina irtetzen etxebizitzatik, beraz, teilatuaren itzalen patroia hau hutsuneetan kalkulatu da arinago esan bezala leihoen babes moduan adieraziz.

### 6.2.6. Emaitzak

Behin datu guztiak CE3X programan sartuta, ziurtagiri energetikoa lortzeko botoiari emanaz programak kalkulu guztiak egiten ditu eta ondoren, ziurtagiri energetikoaren kalifikazioa pantailaratzen du. Bertan, eskala agertzen da dagokion hizki eta kolorearekin eta etxebizitzaren datu aipagarrienak ere pantailaratzen ditu dagokien puntuazioarekin eskala berean. Hurrengo irudian ikus daitezke lortutako emaitza guztiak (**Irudia 6**):



Irudia 6: Lortutako ziurtagiri energetikoa

Ikus daitekenez, lortutako etxebizitzaren ziurtagiri energetikoaren kalifikazioa E motakoa izan da, 45.5 puntukoa eta laranja argi kolorekoa da. Esan beharra dago etxebizitzaren kalifikazio energetikoaren media D eta E letren artean dagoela, beraz, letra horiek neurtzen dute etxebizitzaren baten efizientzia energetikoaren "onarpena". Kasu honetan lortutako

kalifikazioarekin, beraz, esan daiteke nahiz eta ez den kalifikazio oso on bat lortu Espainiako etxebizitzaren batz bestekoaren barruan sartzen dela. Hala ere, gutxi gorabehera espero zen kalifikazioa da, izan ere oso etxe zaharra da eta ez ditu erreforma handiegirik jasan, bakarrik gutxi batzuk apaingarri gisa.

Emaitzei erreparatuz, etxebizitza honek ur bero sanitario eta berokuntza sistemarako galdara mixtoa duenez, bi funtzio horietarako erregaia erretzean askatzen den CO<sub>2</sub> kantitatea pantailaratzen du. Honetan irakur daitezkeen balioak nahiko altuak dira. Hori horrela izango da ziurtagiria ez delako hain ona, gero eta hobea izanda emisioak gutxitzea lortuko baita. Aztergai den kasuan, ikus daiteke etxebizitzaren berokuntza sistemaren datuak aztertuz, eskaria nahiko handia dela, eta beraz, konfort egoera lortzeko beharrezkoa izango da erregai kantitate handiagoa erretzea CO<sub>2</sub> emisioak handituz arinago aipatu den bezala. Ur bero sanitarioari dagokionez, beharrezkoa den ur bero sanitarioa lortzeko emititzen den CO<sub>2</sub> kantitatea adierazten du.

Programak berak txosten bat sortzen du etxebizitzari buruz sartutako datu guztiekin. Horretan ziurtagiri energetikoari dagozkion emaitzak agertzen dira eta baita proposatuko diren hobekuntzekin. Jarraian aztertuko dira proposatutako hobekuntza horiek eta analisi sakon bat egingo zaio bakoitzari, gero hobeen egokitzen dena aukeratuz. Lortutako txosten guztia IV Eranskinean dago ikusgai.


## 7.Hobekuntzen analisia

Lortutako kalifikazioa Espainian eraikitako etxebizitzaren kalifikazioen batzbestekoaren barruan dagoela ikusi da. Nahiz eta kasu honetan kalifikaziorik onena ez izan, ez da existitzen eraikitako etxebizitza perfekturik eta beraz, beti dago hobetzeko aukera. CE3X programak berak proposamenak eskaintzen ditu ziurtagiriaren kalifikazioa hobetzeko asmoz. Gainera informazio gehigarria eskaintzen du hauek inplementatzeko orduan eta lortutako ziurtagiri energetiko berriaren kalifikazioa eskaintzen du. Atal honetan bideragarriak diren hobekuntza ezberdinak aztertuko dira.

Programak hobekuntzen proposamenak lau aspektu ezberdinetan eskaintzen ditu: isolamendu termikoak, hutsuneak, zubi termikoak eta instalazioak hobetzea. Arlo ezberdin horietako hobekuntzak aztertuko dira bai teknikoki eta bai ekonomikoki eta etxebizitzarentzako egokiena eta bideragarriena zein den aztertuko da.

### 7.1.Isolamendu termikoaren hobekuntza

Berokuntza eskariaren murrizketa isolamenduak hobetuz eta transmitantzia jaitsiz lor daiteke. Etxebizitzak inolako isolamendurik ez duenez, hori aukeratu da hobekuntza neurri moduan. Programak aukera ezberdinak ematen ditu isolamendua non egingo den arabera, fatxadan, zoruan... Zorua kasuan, orain dela urte gutxi berriztutakoa denez, ez da aukera hori aurreikusten, beraz, fatxadan egindako isolamendua aukeratuko litzateke, bereziki kanpoaldetik egindako isolamendua. Beraz, programan aukera hori aukeratuz hobekuntza honek ekarriko lukeen eragina ikus daiteke hurrengo irudian (**Irudia 7**).



Irudia 7: Kanpo isolamendua jartzearen hobekuntza

Ikusten den moduan, kalifikazio energetikoa pixka bat aldatzen da. Hizkia aldatzen ez bada ere, zenbakia 45.5etik 33.9ra aldatzen da. Beraz, hobekuntza bat gertatu dela antzeman daiteke. Koadroaren barrukoari erreparaturaz, ur bero sanitarioaren emisioak aldatzen ez badira ere, berokuntza sistemagatik gertatuko emisioen %32,7 jaisten da. Isolamenduak hobetzeak beroa

hobeto mantentzea eragiten duenez, erregai gutxiago kontsumitu beharko da konfort egoera mantentzeko eta beraz, CO<sub>2</sub> emisioak jaitsi egingo dira. Kasu honetan berokuntza sistemaren eskaria %32,7 ko jaitsiera duenez, jaitsiera hori erregaiaren ordainagirietan islatuko litzateke, esan bezala kontsumoa jaisten delako.

Hobekuntza proposamen hau ekonomikoki aztertzean, lortu den gauza bakarra isolamendua era honetan jartzeko orduan estimazio hurbildu bat izan da, hori bai ez dago aukerarik etxebizitzan egiteko, eraikin osoan baizik. Hori dela eta, hau tratatzat har daiteke. Hobekuntza neurri hau egiterako orduan eraikin osoari eragiten dionez bertan bizi diren bizilagun guztien onespena beharko litzateke. Enpresa batzuei deituz 50.000-100.000 € bitarteko aurrekontu bat lortu da ezaugarri hauetako etxebizitza batentzat erabiltzen den isolamendu motaren arabera. Beraz, traba handia izan daiteke hobekuntza hau aplikatzea oso zaila izango litzateelako eraikin osoko bizilagunen onspen hori lortzea. Gainera orain dela 30 bat urte fatxada berritzeko errehabilitazio obra bat egin zen eraikina apaintzeko inolako hobekuntza termikoko obra egin gabe. Hori dela eta fatxadak oso itxura ona dauka gaur egun eta esan daiteke nahiko berria dela. Hori guztia esanda arazoa izango litzateke bizilagunek proposamen hau onartzea eta ondorioz baztertu egingo da neurri hau eta barrutik isolatzea aztertuko da, kasu honek aztertutako etxebizitzari bakarrik eragiten baitio.

Etxebizitza barrutik isolatzerako orduan hurrengo hobekuntza lortuko litzateke:

RESULTADOS	Medidas mejora	Caso base	Ahorro	
Demanda de calefacción	75.7 E	86.3 E	12.3 %	A
Demanda de refrigeración	No calificable	No calificable	-	B
Emisiones de calefacción	31.1 E	35.5 E	12.3 %	C
Emisiones de refrigeración	No calificable	No calificable	-	D
Emisiones de ACS	10.0 G	10.0 G	0.0 %	E
EMISIONES GLOBALES	41.1 E	45.5 E	9.6 %	F

Irudia 8: Barne isolamendua jartzearen hobekuntza

Kasu honetan ikus daiteke berokuntza sistemaren eskaria txikiagoa dela eta aurreko kasuarekin konparatuz, gutxiago aurrezten dela. Hala ere %12.3ko eskari murrizpena lortzen da eta hori ere erregaiaren ordainagirian islatuko da aurrezki gisa. Kalifikazioari dagokionez, hobekuntza lortzen bada ere, ikus daiteke ez dela askorik hobetzen. Hizki berdinean jarraitzen da eta erregaiaren kontsumoa eta baita gasen emisioa murriztea lortzen da.

Analisi ekonomikoari dagokionez, isolamendu ezberdinak aurki daitezke funtzio hau betetzen dutenak. Informazio gehigarria lortu da eta bi aukera aztertu dira: alde batetik aire kamara bat egitea eta perlita bidezko betetzea eta beste aldetik pladurrezko transformatu bat egitea eta



## 7.2.Hutsuneen hobekuntza

Etxebizitzako leihoak ez dira etxearekin eraikitakoak, hala ere, txarrak ez diren arren ez dira oso modernoak eta ondorioz gerta daiteke horiek aldatuz hobekuntza garrantzitsua lortzea. Kasu honetan programak lau aukera ezberdin ematen ditu: isolamendu handiagoko beirak aldatzea, leiho osoa aldatzea, leihoen zigilatzea hobetzea eta leiho bikoitza jartzea. Programak lau aukerak aurkeztean, lortuko den ziurtagiri energetiko berriaren kalifikazioa erakusten du. Hor ikus daiteke zuzenean ez dela hobekuntza handirik lortuko ondoko irudian ikus daitekeen bezala (**Irudia 9**):

Nombre de la medida	Elemento mejorado	Nota caso base mejorado
Sustitución de vidrios por otros más aislantes	Sustitución/mejora de Huecos	44.45 E
Sustitución de ventanas	Sustitución/mejora de Huecos	44.63 E
Mejora Estanqueidad Ventanas	Sustitución/mejora de Huecos	45.3 E
Incorporación de doble ventana	Sustitución/mejora de Huecos	44.88 E

Irudia 9: Hutsuneen hobekuntzarako aukerak

Beraz, bat aukeratzeko orduan ikus daiteke ziurtagiriaren kalifikazioa ez dela askorik hobetzen. Leiho mota ezberdinak jartzeko aukerak aztertu dira eta guztietan emaitza antzekoa lortu da. Horregatik, lortzen den hobekuntza ikusteko leihoak aldatzea aukeratu da, beirak aldatzeko leiho osoa apurtu beharko baitzen. Kasu honetan isolamendu eta zigilatze hobegoko leihoak aukeratu dira eta lortuko litzatekeen hobetzea hurrengoa izango litzateke (**Irudia 10**):

RESULTADOS	Medidas mejora	Caso base	Ahorro	
Demanda de calefacción	84.2 E	86.3 E	2.4 %	A
Demanda de refrigeración	No calificable	No calificable	-	B
Emissiones de calefacción	34.6 E	35.5 E	2.4 %	C
Emissiones de refrigeración	No calificable	No calificable	-	D
Emissiones de ACS	10.0 G	10.0 G	0.0 %	E
EMISIONES GLOBALES	44.6 E	45.5 E	1.9 %	F
				G

Irudia 10: Leiho berriak jartzearen hobekuntza


Ikusten denez ez da ezertan hobekuntza askorik lortzen, hizki eta kolore berdinean jarraitzen du. Lortzen den gauza bakarra berokuntza sistemaren eskaria eta CO<sub>2</sub> emisioen jaistea izango litzateke, baina oso gutxi jaisten denez aukera hau ere baztertu egingo litzateke. Ekonomikoki aztertzerako orduan, nahiz eta leiho ezberdinen probak antzeko hobekuntza lortu, bi beirazko aluminiozko leiho lakatuak erabili dira. Guztira 7 leiho berri jarri beharko lirateke eta horiek jartzeko inbertsioa 5700€-koa izan da. Hori dela eta, ikus daiteke ez duela merezi inbertsio hain



garestia egitea ez baita eskari energetikoa asko murrizten. Hori dela eta inbertsio hori egiterakoan denbora asko iraungo luke dirua errekuaratu arte.

### 7.3.Zubi termikoen hobekuntza

Ematen den beste aukera bat zubi termikoak hobetzea izango litzateke. Kasu honetan programak bi aukera ematen ditu: alde batetik fatxadako zutabe integratuen barruko estaldura hobetzea eta beste aldetik pertsiana kaxen isolamendua garatzea. Kalifikazio hobena lortzen duen aukera pertsiana kaxen isolamendua garatzea izango litzateke eta hori da aztertuko dena irudian ikusten den bezala (**Irudia 11**):



Irudia 11: Pertsiana kaxak isolatzearen hobekuntza

Kasu honetan ere ez da hobekuntza nahikorik lortzen eskalaren leku eta kolore berberean jarraitzen baita. Honek ere berokuntza sistemaren eskaria jaitea dakar baina oso portzentaia txikian. Beraz aukera hau ere ekonomikoki oso garestia izango litzateke lortzen den hobetzerako. Hala ere, prozesu honen aurrekontu bat eskatu da eta 830€-ko gutxi gorabeherako esfortsu ekonomikoa egin beharko litzateke. Ikusten denez, aurreko proposamenekin konparatuz aukera merkeena da baiena %5.3ko aurrezte ekonomiko txikia lortzen denez, hau ere obra oso deseroso bat izango litzateke etxean lortzen den hobekuntzarekin konparatuz. Hori dela eta aukera hau ere baztertu egiten da.

### 7.4.Instalazio termikoen hobekuntza

